

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Consensus Forecasten arabera, munduko ekonomia %2,6 haziko da 2013. urtean eta gehikuntza erritmoa %3,3ra bizkortuko du 2014an. Munduko ekonomiaren 2013ko bilakaera hainbat faktorek baldintzatuko dute, beraien artean oraindik Europako zor subiranoaren krisiaren mehatxua nabarmentzen da, konpondu gabe dagoelako. Eurogunearen desagertzeak ekonomian izango lukeen eragina AEBetako finantza krisiak 2008an izan zuena baino are handiagoa izan zitekeen eta munduko merkataritzaren bolumenean utziko zuen hondoramena 2009koa baino handiagoa izan zitekeen. Beste aldetik, Iraneko krisi nuklearra arreta gune garrantzitsua izango da 2013an, balizko gatazka batek petrolioaren salneurria goraraziko zuelako eta munduko ekonomia larriki kaltetuko zuelako, bereziki petrolioaren inportazioen menpean dauden herrialdeak. Arrisku horiek guztiak hor egon arren, 2013. urtea trantsizioko urtetzat jotzen da, harez geroztik munduko ekonomiak suspertzeko joera txikia baina indarra hartuko duena hasiko baitu.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumo prezioen indizeak		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Munduko ekonomia	2,5	2,6	3,3	3,0	2,8	3,1
AEB	2,2	1,9	2,8	2,1	1,8	2,2
Kanada	2,0	1,8	2,4	1,5	1,5	2,0
Japonia	1,9	1,2	1,2	0,0	-0,1	1,7
Eurogunea	-0,5	-0,2	1,0	2,5	1,8	1,7
Europar Batasuna	-0,3	0,1	1,2	2,4	2,0	1,9
Alemania	0,7	0,7	1,7	2,0	1,9	2,0
Espainia	-1,4	-1,5	0,3	2,4	2,2	1,5
Frantzia	0,0	0,0	0,8	2,0	1,5	1,8
Herbehereak	-0,9	-0,3	1,0	2,5	2,4	2,0
Italia	-2,2	-0,9	0,6	3,0	2,0	1,8
Erresuma Batua	0,0	0,9	1,7	2,8	2,7	2,3
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,8	5,0	2,5	2,6	3,2
Ekialdeko Europa	2,5	2,8	3,7	6,4	5,3	5,0
Amerika Latinoa	2,7	3,5	3,9	5,9	6,4	6,4


Iturria: Consensus Forecast (2013ko otsaila).

AEBetan, 2013. urtea arintze albiste batekin hasi zen, Kongresuak *in extremis* amildegi fiskala saihesteko akordio bat lortu zuenean. Hala eta guztiz ere, akordio hori ez zen behin betikoa eta 2013ko lehen hiruhilekoan ez da beste baimenik lortu. Gertakari horrek hainbat murrizketa ekarriko ditu, gastu publikoaren eta estatubatuar ekonomiaren etorkizuneko bilakaeran eragina izango dutenak. Kongresuko akordio faltak BPGaren hazkunde tasa puntu erdi bat gutxiago haztea ekar dezakeela aurreikusten da. Ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakundeek arabera, estatubatuar ekonomia neurritz haziko da 2013. urtean, %2,0aren ingurukoa, eta hazkundera 2014an %3,0tik hurbil biziagotuko da. Lan merkatuan gertatuko diren hobekuntzak poliki-poliki iritsiko dira eta arlo pribatuak konpentsatu beharko ditu eremu publikoan espero diren enplegu galerak.

BPGaren bilakaera eremuka


Urte arteko aldakuntza tasak

Eurogunea




2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014

AEB




2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014

Japonia



2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014

Txina




2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014

Iturria: NDF. 2013ko urtarrileko aurreikuspenak.


Japonian, eta pasa den abenduan egin ziren hauteskundeen ondoren, ekonomia politika aldatuko dela espero da, arlo eta fiskalean eta moneta politikan neurri hedakorrak hartuko direla iragarritz. Inflazioaren helburua igo nahi dute eta horretarako moneta politika moldakorrak erabiliko dira eta aktibo gehiago erosiko dira. Azken helburua eragin positiboa lortzea eta ekonomia suspertzea da. Japoniako ekonomiarentzat aurreikusten diren hazkunde tasak datozen bi urteetan %1,2an kokatzen dira, Consensus Forecasten aurreikuspenen arabera.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Txinan, %8,0aren zertxobait gainera egongo diren hazkunde tasak espero dira 2013 eta 2014 urteetarako. 2012ko azken seihilekoan bertako gobernuak ezarri zituen zerga eta moneta politiken eraginak 2013ko lehen erdian nabaritu dira. Europan espero den suspertzeak eta AEBetako hazkundeak Txina lagunduko dute 2014. urtean gehikuntza tasa biziagotzeko. Dinamismoa areagotuko duen beste faktore bat barneko eskualdeetan egingo diren azpiegiturak izango dira. Analisisile batzuek ohartarazten dute epe laburren inflazioaren presioa handiagoa izango dela, barne eskariaren gorakadarengatik, lan eskaintzaren aldaketengatik eta moneta arloko malgutasunarengatik. Indiari dagokionez, azken hiruhilekoetan nozitu zuen moteltze biziaren ondorioz, badirudi bertako ekonomiak hondoa jo duela eta hoberantz egin behar zuen 2013. urtean zehar. NDFren arabera, hazkunde tasa %5,9 izango da 2013an eta %6,4, berriz, 2014an. Herrialde horrek erronka askori egin beharko dio aurre, hala nola defizit publiko handiari, inbertsioaren murrizketei, inflazio altuari eta interes tasa altuei. Etorkizunerako pauso garrantzitsu bat Indiako parlamentuaren araudi berria

izango da, atzerriko inbertsio zuzena ekonomiaren sektore estrategikoetan baimenduko duelako.

Brasili dagokionez, 2013rako eta 2014rako aurreikuspena oso baikorra da eta 2012ko hazkunde ahula atzean uztea ahalbidetuko du. Hain zuzen ere, NDFk %3,5ean kokatu du Brasileko hazkundera 2013. urtean eta %4,0an, berriz, 2014an. Urte horietan, Brasilek zerga eta moneta politika hedakorrak ezarriko ditu eta, halaber, futboleko Munduko Txapelketa eta Joko Olinpikoak egiteko beharko diren azpiegiturekin lotura duten inbertsioak oso nabarmen areagotuko dira.

Europako zor subiranoaren krisia da 2013ko ekonomia panoramaren arrisku behinena. Finantza merkatuetan nabaritu den hobekuntza txikiak denbora beharko du jarduerako datuetara igarotzeko, eta Eurogunerako aurkeztu diren aurreikuspenek %-0,2ko hazkundera iragartzen dute 2013rako eta %1,0ko suspertze motela, berriz, 2014rako. Periferiako herrialde batzuek atzeraldian jarraituko dute 2013. urtean eta urte horretan ekonomiak hondoa joko du, harez geroztik susperraldiari ekiteko. Susperraldi hori kanpo arloaren eskutik iritsiko da, munduko ekonomiaren gorakada desiratuari esker. Aitzitik, barne eskariak behera egingo du berriro 2013. urtean, ekonomia eragileen konfiantza maila oso txikia delako eta atzeraldiak gehien kolpatu dituen herrialdeetan ezarri diren doikuntza politikek eragin negatiboak izango dituztelako. Hala eta guztiz ere, aurreikusi den denbora tarte horretan, banka batasunerantz eramango duten urratsak sendotuko direla espero da, gainbegiratze bakarrarekin eta bankuetako balizko krisiak konpontzeko ezarriko diren mekanismoekin. Tresna horiek eragileen konfiantza areagotuko dute eta bizitasuna sartuko dute barne eskarian.

Espainia izango da 2013an BPGaren hazkunde tasa negatiboak izango duen moneta batasuneko herrialdeetako bat. Hain zuzen ere, Consensus Forecastek %-1,5ean kokatu du aurtengo urte arteko tasa herrialde horretarako. Aurreikuspen hori bat dator NDFk eta Funcaseko aditu taldeek eman dutenarekin. Europako Batzordeak, berriz, %-1,4an utzi du. Erakunde horiek guztiak bat datoz 2013an BPGaren jaitsiera motelduko dela eta 2014an susperraldia iritsiko dela esatean. Izan ere, 2014rako aurreikuspen tasa %03aren (Consensus Forecastek) eta %0,8aren (Europako Batzordeak eta NDFk) artean egongo da.

2013an, kontsumo pribatuak okerrera egingo du berriro, langabezia areagotuko delako eta espainiar familiek zorpetze maila gutxituz jarraituko dutelako. Enpresarien igurikimen ezkorrek kapital eraketa gordina baldintzatuko dute. Esportazioen sendotasunak ekipamendurako inbertsioa biziagotuko du, baina eraikuntzan eginiko inbertsioak behera egingo du berriro eta hasiko diren etxebizitzaren kopurua txikiagoa izango da. Kanpo eskariaren ikuspegitik, esportazioen ekarpena BPGaren hazkunderari positiboa izango da eta gero eta

handiagoa izango da Espainiako merkataritza bazkideen egoera ekonomikoa hobetuko den heinean.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2013ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoen eta bestean	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
AFI	-1,8	0,5	-3,0	-0,1	-6,3	-4,0	-6,4	0,9	-7,7	-0,4	-4,4	3,3
BBVA	-1,1	1,1	-2,8	-0,3	-7,2	-1,8	-6,8	2,6	-10,2	0,3	-1,7	6,4
Bankia	-1,5	0,7	-3,1	-0,1	-5,0	-3,1	-7,5	-0,8	-8,4	-1,8	-7,4	0,5
CatalunyaCaixa	-1,5	0,8	-3,3	-0,1	-6,3	-2,0	-8,3	-3,8	-8,7	-4,1	-7,8	-3,4
Cemex	-1,6	0,4	-3,1	0,1	-3,6	-1,7	-7,9	-0,3	-10,0	-2,6	-6,0	1,7
CEEM-URJC	-1,4	1,1	-2,4	0,1	-7,0	-1,4	-5,5	-0,8	-7,2	-1,9	-3,6	0,8
CEPREDE-UAM	-1,5	0,9	-2,5	0,1	-3,8	-0,6	-7,9	-1,3	-9,5	-2,0	-6,7	-1,0
CEOE	-1,5	0,8	-3,1	-0,2	-4,0	-2,4	-7,3	-2,2	-10,5	-5,5	-2,8	3,3
ESADE	-1,0	---	-1,0	---	-4,5	---	-0,9	---	---	---	---	---
FUNCAS	-1,6	0,5	-3,2	-0,3	-3,1	-2,4	-7,7	-2,7	-9,1	-5,1	-6,5	0,3
ICAE-UCM	-1,3	---	-2,2	---	-7,8	---	-11,9	---	-15,3	---	-6,7	---
IEE	-1,5	---	-2,5	---	-6,5	---	-6,5	---	-8,5	---	-3,0	---
CJC unibertsitatea	-1,4	0,9	-2,1	0,6	-3,6	-2,5	-5,4	1,6	-7,7	-0,5	-1,8	6,8
IFL-UC3M	-1,6	0,0	-2,6	0,2	-6,3	-3,7	-7,5	-3,4	-9,4	-5,0	-6,9	-2,5
Intermoney	-2,0	---	-3,8	---	-5,2	---	-11,4	---	-11,1	---	-13,5	---
La Caixa	-1,3	0,8	-3,0	0,1	-4,0	-2,2	-7,6	-1,1	-9,1	-2,6	-4,6	1,8
Repsol	-1,4	0,8	-2,7	-0,4	-4,0	-1,6	-5,7	0,8	-6,5	-1,6	-3,1	6,3
Santander	-1,4	0,9	-2,9	0,5	-5,0	-3,0	-6,8	-0,9	-7,9	-2,9	-4,2	2,5
Solchaga Recio	-1,8	0,2	-3,1	-0,5	-4,5	-3,5	-8,1	-3,6	-10,6	-5,5	-5,1	-0,5
Batez bestea	-1,5	0,7	-2,8	0,0	-5,1	-2,4	-7,2	-1,0	-9,3	-2,7	-5,3	1,8
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-09)	-0,5	1,2	-1,4	1,0	-8,2	-6,4	-2,0	1,4	---	---	---	---
Esp. Bankua (2012-01)	0,2	---	-0,5	---	-3,3	---	-2,2	---	-3,1	---	-0,9	---
E. Batzor. (2013-02)	-1,4	0,8	-2,7	-0,2	-5,4	-1,1	-6,6	-1,0	---	---	---	---
NDF (2012-10)	-1,5	0,8	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2012-11)	-1,4	0,5	-2,3	-0,5	-4,0	-0,8	-9,0	-2,7	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2013ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
AFI	-4,3	-0,7	3,2	6,2	-4,8	3,0	2,2	1,7	-3,9	0,4	27,3	26,6
BBVA	-4,6	0,0	6,3	8,2	-4,4	5,8	2,0	1,1	-3,4	-0,4	26,8	26,1
Bankia	-4,4	-0,9	3,6	4,2	-5,7	-0,8	1,9	1,9	-3,4	-0,4	26,7	26,6
CatalunyaCaixa	-4,9	-1,2	5,0	5,4	-4,6	2,0	2,1	2,0	-3,5	1,1	26,8	26,3
Cemex	-4,1	-0,3	4,1	5,0	-3,1	3,2	1,8	1,2	-3,0	0,1	26,5	26,5
CEEM-URJC	-3,9	-0,4	5,5	5,8	-2,3	1,8	1,8	1,2	-2,2	0,2	26,0	25,5
CEPREDE-UAM	-4,3	-0,6	3,2	4,9	-4,2	1,7	2,1	1,7	-3,0	-0,4	26,6	26,9
CEOE	-4,2	-0,9	5,1	5,7	-3,1	0,8	2,0	1,2	-3,2	-0,5	27,0	26,9
ESADE	-1,7	---	3,0	---	-1,0	---	2,5	---	-2,5	---	24,5	---
FUNCAS	-4,0	-1,2	3,0	6,1	-4,4	1,5	2,0	1,4	-3,5	-0,9	26,6	26,0
ICAE-UCM	-3,5	---	4,8	---	-2,6	---	2,8	---	-3,4	---	27,5	---
IEE	-3,9	---	4,6	---	-3,0	---	2,2	---	-3,0	---	26,5	---
CJC unibertsitatea	-3,1	0,2	3,2	4,1	-3,1	1,3	2,3	1,5	-3,6	-0,9	27,1	27,4
IFL-UC3M	---	---	3,2	4,3	-4,8	0,3	2,1	1,7	---	---	27,2	27,3
Intermoney	-5,4	---	0,8	---	-10,4	---	1,1	---	-4,2	---	27,9	---
La Caixa	-4,0	-0,6	4,4	4,2	-4,2	0,4	2,1	1,6	-3,2	0,3	26,4	25,7
Repsol	-3,5	-1,5	5,3	6,0	-3,3	2,1	2,1	1,7	-3,1	-1,0	26,9	26,0
Santander	-4,0	-0,5	5,0	5,7	-4,6	1,7	1,9	2,0	-2,7	0,4	26,7	26,0
Solchaga Recio	-4,4	-1,7	3,5	5,7	-4,9	0,5	1,8	1,6	-3,5	-0,8	27,5	27,3
Batez bestea	-4,0	-0,7	4,0	5,4	-4,1	1,7	2,0	1,6	-3,2	-0,2	26,8	26,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-09)	-2,8	-0,3	6,0	7,1	-1,5	3,3	---	---	-0,2	1,1	24,3	23,3
Esp. Banku (2012-01)	---	---	5,9	---	1,2	---	1,2	---	-0,7	---	23,3	---
E. Batzor. (2013-02)	-4,0	-0,5	4,2	5,7	-3,8	2,0	1,7	1,0	-3,1	0,0	26,9	26,6
NDF (2012-10)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2012-11)	-4,0	-0,9	6,4	6,2	-1,3	2,4	1,2	0,4	---	---	26,9	26,8

Iturria: Funcas.

Lan merkatuan abiarazi diren erreformek eragin positiboak izan beharko lukete 2013. urtean, espainiar ekonomiaren enplegu galera bizia leunduz eta soldaten eta lanpostuen arteko balantzea doituaz. Hala eta guztiz ere, lan merkatuaz egin diren aurreikuspenak oso ezkorrak

dira oraindik eta, esate baterako, Funcasek 2013rako %26,7an kokatu du langabezia tasa, eta enpleguaren narriadura, berriz, %-3,1ean, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta.

HIRUHILABETEAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2013ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013-I	2013-II	2013-III	2013-IV	2013	2014
BPG	-2,4	-1,8	-1,3	-0,3	-1,5	0,9
Kontsumo pribatua	-3,7	-2,8	-2,5	-0,7	-2,5	0,1
Kontsumo publikoa	-4,1	-4,7	-3,2	-3,0	-3,8	-0,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	-9,4	-7,9	-7,6	-6,5	-7,9	-1,3
- Inbertsioa ekipamenduan	-7,7	-6,5	-7,0	-5,6	-6,7	-1,0
- Inbertsioa landutako aktib.	-7,6	-6,1	-5,2	-2,0	-5,3	3,5
- Inbertsioa eraikuntzan	-11,2	-9,5	-9,0	-8,0	-9,5	-2,0
Barne eskaria	-5,3	-4,7	-4,3	-2,7	-4,3	-0,6
Esportazioak	3,3	3,0	2,8	3,6	3,2	4,9
Inportazioak	-5,3	-4,7	-4,5	-2,3	-4,2	1,7

Iturria: CEPREDE.

EAEko aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa berrikusi du 2013. urterako eta lehen aldiz 2014ko lehen sei hilekoarako hazkunde aurreikuspenak argitaratu ditu. Gaurkotze lan horretan, EAEko kontu ekonomikoen aldaketa metodologikoak kontuan hartu ditu. Informazio berriak seinalatzen du EAEko ekonomia 2013. urtean %1,1 murriztuko dela, hots, aurreko txostenean iragartzen zen tasa bera estimatu da oraingoan. 2014ko lehen sei hilekoari dagokionez, EAEko ekonomiaren batez besteko hazkunde tasa puntu erdi positibo bat izango zen. Aurreikusi den epealdi guztirako hiruhilekako bilakaerak geldotasuna iragartzen du 2013ko lehen hilekoetan eta harez geroztik susperraldi arin baina etengabea hasiko da. Lehen hazkunde tasa positiboak 2014ko lehen hilekoetan lortuko dira.

Barne eskariak ahultasun garbia erakutsiko du 2013an eta 2014ko lehen bi hiruhilekoetan zehar. Hobekuntza arina izango du, baina zeinu negatiboa etengabea izango da BPGaren hazkundeari eginiko ekarpenean. Kontsumo pribatua %1,0aren inguruan jaitsiko da aurreikuspen horretan eta zertxobait haziko da 2014ko urtariletik ekainera bitartean.